

NOLA EMAN ALTA NIRE SEME-ALABARI ESKOLA-KIROLEAN

Eskola-kiroleko edozein jardueratan parte hartzeko, beharrezkoa da, lehenago, gurasoek edo tutoreak kirolariaren datuak Eskola Kirolaren Datu Basean sartzea, eta horri Eskola Kirolean alta ematea esaten diogu. Hori egiteko hemen klikatu behar duzu:

Beharrezko dokumentazioa

Komeni da alta-prozesua hasi aurretik dokumentu hauek prest izatea, eskabidearekin batera erantsi beharko dituzunak:

- Alta eman beharreko kirolariaren **argazki digitala**.
- **Gurasoentzako prestakuntza-ikastaroa** gainditu izanaren ziurtagiria. Esteka hau sakatuta egin dezakezue: [Prestakuntza](#). Bizkaiko eskola-kirolaren oinarritzko alderdiak modu errazean azalduko dizkiguten bideoak ikusi ondoren, prestakuntza hori egiaztatzen duen diploma bat jasoko duzu zure posta elektronikoan. Diploma hori erantsi beharko duzu.
- Ikasten ari den **ikastetxearen ziurtagiria**. Ziurtagiri hori Eusko Jaurlaritzaren [Ikasgunearen](#) atarian lor dezakezue.


Dokumentazio hori eskuratu ondoren, kirolariari alta eman ahal izango diozu Eskola Kirolaren datu-basean.

Eskola Kirolaren datu-basean alta ematea

Prozesu hori hemendik egiten da:

<http://apps.bizkaia.net/BKIN/servlet/webAgentBKIN?ATOMQINPUTQoperationName=BKINMenu&IdInscripcion=IdInscripcion&idioma=EU>

IZENA EMATEA ESKOLA-KIROLEAN



AITA, AMA EDO TUTOREA NAIZ

1º

NIRE ALABARI LEHEN ALDIZ ESKOLA KIROLEAN ALTA EMATEA
(eskola-kiroleko etapa hasten denean bakarrik egiten da)

2º

NIRE ALABA LEHIAKETA BATEAN INSKRIBATZEA
(urrats hau ikastetxe, guraso-
elkarte edo kirol-klub batek egin
behar du)

**NIRE ALABA HASTAPEN- EDO JOLAS-
IKASTARO BATEAN INSKRIBATZEA**

Laguntza Informatikorako telefonoa
Astelehenetik Ostiralakera, 07:30 - 19:00.
☎ **94 608 3566**

Eskola Kirolari buruzko informazio-telefonoa
Astelehenetik ostiralera, 9:00 - 14:00 eta 16:00 - 19:00.
☎ **94 441 09 00**
📍 **ASFEDEBI: c/Martin Barua Pikaza 27, 48003 Bilbo**
✉ **ek.kudeaketa@bizkaia.eus**
Extraneta behar bezala bistaratu ahal izateko guburueneko baldintzak:

- Internet Explorer 11, Firefox 104.0.2 edo Google Chrome 105.0
- 1024*768 edo gehiagoko pantaila-bereizmena
- Zenbait dokumentu ikusi ahal izateko ezinbestekoa da Adobe Reader instalatu eta konfiguratzeko. Doako softwarea da, eta Adobe-aren web orrian lor dezakezu.

Itzuli

Horretarako, beharrezkoa da alta egingo duen aita, ama, tutorea edo tutorea eskura dauden **ziurtagiri elektronikoen bidez identifikatzea** (NAN elektronikoa, BAQ, BAK, etab.).

Ziurtagiririk ez baduzu, BAKa da eskuragarriena. Esteka honetan eska dezakezu:

<https://appsec.ebizkaia.eus/FKBK000C/eu/home.xhtml>

Behin identifikatuta, agertzen zaigun **formularioa** kirolariaren ondorengo datuekin **bete** beharko dugu:

- Izen abizenak.
- Jaiotze data.
- Bizi den udalerria.
- Ikasketa zentroa.

Nola eman alta gurasoak atzerritarrak badira eta NAN edo AIZ ez badute

Gurasoak atzerritarrak badira eta NAN edo AIZik ez badute, seme-alabei alta eman ahal izango zaie ek.kudeaketa@bizkaia.eus helbidera agiri hauek bidalita:

- Aitaren, amaren edo tutorearen pasaportearen Kopia
- “NAN/AIZ ez duten guraso edo tutore atzerritarra duen kirolariaren alta-agiria” dokumentua beteta. Dokumentua [hemen](#) aurkituko duzue.